

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

URKABUSTAIZKO UDALA

2020rako landa- eta hiri-ondasun higiezinaren gaineko zerga eta ezaugarri bereziko ondasunen gaineko zerga, hondakin solidoak eta hiri-hondakinak biltzeko zerbitzua emateagatiko tasa eta autotaxi-lizentzien gaineko kobrantza-aldia irekitzea

Xabier Álvarez de Arcaya Fernández de Landa Urkabustaizko Udaleko alkateak jakinarazten dut:

2020ko uztailearen 1etik abuztuaren 31ra bitarteko egun baliodunetan, biak barne, borondatezko epean kobratuko dira 2020ko ordainagiriak, honako udal-zerga eta -tasa hauenak:

– Landa- eta hiri-ondasun higiezinaren eta ezaugarri bereziko ondasun higiezinaren gaineko zergak.

– Hiri-hondakin solidoak biltzeko zerbitzua emateagatiko tasak.

– Auto-taxi lizentziak.

Ordaintzeko epea:

Borondatezko aldia: 2020ko uztailearen 1etik abuztuaren 31ra arte.

Premiamendu-aldia: borondatezko kobrantza-aldia amaitu eta hurrengo egunean hasten da, eta premiamendu administratiboko prozedura exekutiboa hasten da, dagokion errenergua aplikatuta (Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorren 28. artikulua).

Ordaintzeko lekua eta modua:

Ordainketa helbideratuta duten zergadunek ez dute inolako kudeaketarik egin beharko bankuko helbideratze-kontua mantentzen badute. Udala arduratuko da ordainketa izapidetzeaz, 2020ko uztailearen 30ean.

Ordainketa bankuan helbideratuta ez dutenek Udalak Kutxabanken duen kontuan egin ahal izango dute ordainketa borondatezko epean.

Zergadunek beren zerga-zorrik banku- eta kreditu-erakundeetan helbideratzea komeni dela gogorarazten da. Era berean, banku-helbideen altak edo aldaketak eta jakinarazpenetarako helbide-aldaketak ere, Urkabustaizko udaletxean izapidetu beharko dira.

Horren berri ematen da, jende guztiak horren berri izan dezan.

Izarran, 2020ko ekainaren 25ean

Alkatea

XABIER ÁLVAREZ DE ARCAYA FERNÁNDEZ DE LANDA